

eskulanak



barrendik 200-300

1A maila

irakaslearena

EGILEAK

Bizkaiko AEK eta HABE
Proiektuaren arduraduna:
Partehartzaileak:

Juxto Egaña (HABEko Hizkuntzaren Didaktika arduraduna)
Ana Gabiria (Bizkaiko AEK)
Joseba Irazabal (Bizkaiko AEK)
Agurtzane Sotch (Bizkaiko AEK)

© HABE 2001. ISBN 84-86968-29-1
Legezko Gordailua: SS-409/01
Inprimaketa: **GERTU Inprimategia. Oñati.**

HABE Erakundeak eskerrak ematen dizkio Bizkaiko AEK-ri materialgintza proiektu honetan parte hartzerakoan agertu duen borondateagatik.

Diseinua, maketazioa eta marrazkiak: **Marisa Mantxola**

Gure esker ona ondoren aipatzen direnei, hainbat material eta ideia hartzeko baimena eman digutelako:
AEK (Ahoz-aho)

eskulanak

barrendik 200-300

Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Kurrikulua

1A maila

irakaslearena

Hitzaurrea

Helduen Euskalduntzen Kurrikulua garatzeko xedez, hainbat ikas-material eman zuen iaz argitara HABEk, Kurrikuluaren maila bakoitzari zegozkion zortzi ikastunitate hiru sailetan banatuak, *Barrene*, 1B mailarako, *Barrenet 2*. mailarako, eta *Barrenkale* 3. mailarako. Materialgintza-proiektu horri jarraituz, eta euskaltegien partaidetza bultzatu asmoz, 2000ko uztailaren 28an HABEren zuzendari nagusiak ikas-materialak sortzeko dirulaguntza-deialdia egin zuen.

Deialdi horri erantzunez, euskaltegiek burututako ikastunitateak dituzu orain argitara ematen direnak. Bertan aurreko sailez gain 1 A mailarako *Barrendik* izeneko sailari dagozkion ikastunitateak ere argitaratu dira.

Nire eskerrik zintzo eta beroenak eman nahi dizkiet proiektu honetan parte hartu duten euskaltegiei, eta aurrerantzean ere lankidetzara horretan parte hartzera bultzatu nahi zaituztet, ziur bainaiz materialgintza-proiektu honek euskararen ikas-irakas prozesua bideratzeko eta hobetzeko funtsezko baliabideak eskaintzen dizkiela euskaltegiei.

Jokin Azkue Arrastoa
HABEren zuzendari nagusia



AURKIBIDEA

1. Sarrera

- | | | |
|----|--|---|
| 1. | Irakaslearentzako oharrak | 6 |
| 2. | Ikastunitatearen ibilbidea | 7 |
| 3. | Ikastunitatearen edukiak eta helburuak | 8 |

2. Atazak

- | | | |
|-----------------|----------------------------|----|
| A Ataza: | Eskulanak gogoko ote? | 9 |
| B Ataza: | Golokari elkarrizketa | 10 |
| C Ataza: | Nola egiten dira panpinak? | 11 |

3. Eranskinak

- | | | |
|----|-----------------|----|
| 1. | Bideo-pasarteak | 13 |
| 2. | Rolak | 14 |

Eskulanak izango ditugu hizpide ikastunitate honetako lehenengo atazetan. Bigarrean *Goloka* animazio taldeaz mintzatuko gara, eta panpinak nola egiten diren ikasiko dugu.. Hori egiteko ereduak emango dizkiegu ikasleei eta atazetan landutako zenbait hizkuntz forma (*denbora baliabideak, galdegaia*) baliatu ahal izango dituzte.

1. IRAKASLEARENTZAKO OHARRAK

Eskulanak

Ikastunitatearen gai nagusia ESKULANAK dira. *Goloka* animazio taldea oinarri hartuta, **eskulanez**, eta **Goloka animazio taldeaz** jardungo dugu; eta **panpinak nola egin** ikasiko dugu.

Azalpena

Eguneroko bizitzan, sarritan hitz egiten dugu geure gustu eta lehenengo atazan eskulanen inguruan dituztenak azalduko dituzte. Bigarren atazan animazio talde bati egindako elkarriketa jasoko dugu eta hirugarrenean panpinak egiten ikasiko dugu.

Hiztegia

Hiztegi berri dezente ikasteko aukera izango dute ikasleek. Alde batetik gorputz atalak eta bestetik lan tresnak eta materialak.

Ikas-estrategiak

Entzundakoa eta irakurritakoa errazago ulertzeko estrategiei garrantzi berezia emango diegu: ikasleak aurreikuspenak egitera bultzatuko ditugu, aurretik dugun ezagutza aktibatuz...

2. IKASTUNITATEAREN IBILBIDEA

1. SARRERA

- Ikastunitatearen, helburuen eta lan-egitasmoaren aurkezpena (6. or.)

A ATAZA: ESKULANAK GOGOKO OTE?

- Klasera eskuz egindako gauzak ekarri.
- Pertsona batzuek eskulanean inguruan dituzten gustuak entzunda gureak azaldu.
- Gustuak eta lehentasunak azaltzeko hizkuntza- adierazpideak landu. (9. or. irak. lib) (8. or. ik. lib)

ENTZ/IRAK/MINTZ/GRAM

IKASLEEN

AUTOEBALUAZIOA

(19. or. ik. lib.)

C ATAZA: NOLA EGITEN DIRA PANPINAK?

- Bideoan panpinak nola egiten diren ikusi.
- Denbora nozioak adierazteko hizkuntza-adierazpideak landu.
- Azalpenei jarraiki panpinak egin eta erakusketa antolatu dugu. (11. or. irak.lib) (16. or. ik. lib)

ENTZ/GRAM/IDAZ

B ATAZA: GOLOKARI ELKARRIZKETA:

- Animazio taldeei buruz mintzatu.
- *Goloka* taldeari egindako elkarrizketa entzun
 - Galdegaia landu
 - Antzeko elkarrizketak egin. (10. or. irak. lib) (11. or. ik. lib)

MINTZ/ENTZ/GRAM/IDAZ

3. IKASTUNITATEAREN EDUKIAK ETA HELBURUAK

HELBURU NAGUSIA _____

- Erakusketa bat antolatzea, klasean egindako panpinekin eta prozesuaren azalpenarekin.

LEXIKOA: _____

- Gorputz-atalak: betazalak, bekainak, masailak, kokotsa...
- Lan tresnak eta materialak: artaziak, kontaktu-kola, errotulkiak, spray pintura, kotoia, datxa...

MINTZAGAIAK: _____

- Gustuko ditugun eskulanak **(A)**
- *Goloka* taldearen lana

ELKARRERAGINA: _____

- Gure gustuak elkarri azaldu. **(A)**
- Zerbait nola egiten den azaldu. **(C)**

KOMUNIKAZIORAKO AZPITREBETASUNAK: _____

- Ahozko testuak ulertu esango denaz hipotesiak egin ondoren. **(B)**
- Aurrezagutzak piztu **(A)**

GRAMATIKA ETA DISKURTSOA: _____

- Gustuak eta lehentasunak azaltzeko hizkuntza-adierazpideak **(A)**
- Zalantza eta ziurtasuna azaltzeko adierazpideak **(B)**
- Denbora nozioak adierazteko esakuneak (unea, denbora-tartea...) **(C)**

ATAZA: ESKULANAK GOGOKO OTE?



85'

Helburu nagusia:

- Pertsona batzuek eskulanen inguruan dituzten gustuak entzutea, eta gureak azaltzea.

Helburuak:

- Gai bati buruzko aurrezagutzak aktibatzea.
- Entzundako informazio zehatza jasotzea.
- Pertsona batzuek eskulanen inguruan dituzten gustuak entzunda gureak azaltzea.
- Gustuak eta lehentasunak azaltzeko hizkuntza-adierazpideak lantzea.

Zertan den:

- Eskulanen inguruan lagun batzuek esandakoa entzun ondoren, geure gustuei buruz mintzatuko gara.

PROZEDURA:

1

Atazaurrea

- Irudia ikusita, eskulanez hitz egingo dugu, zer dakigun horretaz eta abar: ikasleek komentatuko dute hori zer den, gustukoa duten, nork eginak diren, haien zaletasunak zeintzuk diren. (5')
- *Eskulanak gora behera* testuak entzungo ditugu (1. **bideo-pasartean**). (10')
- Hitzun batzuen azalpenak entzungo dituzte, beraiek ere geroxeago egin beharrekoaren eredu. Azalpenak entzun ahala, *Nori dagokio?* galdetegiari erantzungo diote. (15')
- Ikasleei entzun dutenaren transkripzioa eman (Ikus 3.1. eranskinean), irakurri eta liburuko taula zuzen dezaten. Horrela, azalpenak nola egituratuta dauden ikusiko dute. (10')

ZUZENKETA - ORRIA

NORI DAGOKIO?

1	Josuk
2	Josuk
3	Jonek
4	Josuk
5	Manuk
6	Jonek
7	Josuk
8	Jonek
9	Jonek
10	Manuk

Ataza

- Ikasle bakoitzak eskulanen inguruan zer gustatzen zaion eta zer esperientzia duen azalduko du: hasieran, gidoiari jarraiki idatziz prestatu azalpena. (20')
- Talde txikietan bilduta bakoitzak prestatutakoa ahoz azaldu. (15')

Feedbacka

- Taldeetan esandakoa guztion artean labur-labur aipatuko dugu. (10')

ATAZA: GOLOKARI ELKARRIZKETA 120'

Helburu nagusia:

- *Goloka* taldeari egindako elkarrizketa ulertzea eta antzeko elkarrizketak sortzea

Helburuak:

- Entzugo dutenaren gaineko aurreikuspenak egitea.
- Entzundako informazio zehatza jasotzea.
- Galdegaia lantzea
- Antzeko elkarrizketak sortzea.

Zertan den:

- *Goloka* taldeari egindako elkarrizketa entzugo dute. Entzun aurretik aurreikuspenak egingo dituzte: zer esango duten... Entzun eta gero egindakoak baieztatu eta galderen erantzunak bilatuko dituzte. Galdegaian erreparatu, eta antzeko elkarrizketak sortuko dituzte

PROZEDURA:

1

Atazaurrea

- Animazio taldeei buruz hitz egingo dute labur-labur: baten bat ezagutzen duten, zer dakiten haietaz... (5')
- Bideoan agertuko denaren gaineko hipotesiak egingo dituzte: Zer esango dute? Zeintzuk erantzun azalduko dira? (5')
- *Golokakoen lana* orriko galderak bikoteka irakurriko dituzte. Zerbait ulertzen ez badute ikaskideei galdetuko diete. Haien ustez egokiak direnak aukeratu beharko dituzte. (15')

ZUZENKETA - ORRIA

1	B
2	C
3	B
4	A
5	B
6	C

Ataza

- *Golokari elkarrizketa* testua entzugo dute (2. **bideo-pasartea**) eta egindako hipotesiak egokiak izan diren egiaztatuko dute. (15')

Feedbacka

- Erantzunak guztion artean zuzenduko ditugu. (10')

Gramatika eta diskurtsoa: galdegaia

- *Galdegaia lantzen* ariketa bikoteka egingo dute: testuan agertzen diren hutsuneak betetzeko, lehenengo adibideetan eskaintzen diren aukeren artean egokia dena hautatu, eta hurrengoetan eskaintzen diren hitzekin erantzunak osatuko dituzte. (20')

ZUZENKETA - ORRIA

GALDEGAIA LANTZEN:

1	B
2	B
3	A

- Irakaslearen laguntzaz galdegaiaz hitz egingo dute, eta araua ateratzen saiatuko dira. (10')

2

Ataza

- Transkripzioa banatu (ikus 3.1. eranskinean) eta hitz egin duenak izan duen jarrera komentatu. Ziur egon da emandako informazioaz? (5')
- Ziurtasuna eta zalantza adierazteko formak emango dizkiegu ikasleei. Esanahiari erreparatuta zertarako balio duten komentatuko dugu. (10')

ZUZENKETA - ORRIA

Erabat ziurra den informazioa:

- Jakina
- Noski
- Dударik gabe
- Argi dago ...-(e)la

Zalantzazko informazioa:

- Omen /ei
- Beharbada
- Seguru asko
- Dirudienez

- Ikasleei, taldeka jarrita, "rol" bana emango diegu (ikus 3.2. eranskinean), eta bertan agertzen diren egoerak kontuan hartuz, elkarrizketak berregin beharko dituzte. Batzuetan oso ziur egongo dira eta beste batzuetan zalantzan. (20')

Feedbacka

- Sortutako testua antzetzu egin beharko dute, eta ikaskideak elkarrizketatutako pertsonaiak zein "rol" daukan

ATAZA: NOLA EGITEN DIRA PANPINAK?  190'**Helburu nagusia:**

- Bideo batean oinarrituta panpinak egiten ikastea.

Helburuak:

- Irakurri aurretiko hipotesiak egitea.
- Zerbait egiteko prozesuaren azalpena egitea.
- Denbora adierazteko hizkuntz formak lantzea.

Zertan den:

- Bideo batean *Goloka* antzerki taldekoek panpina bat nola egiten den azalduko digute. Azalpen horiei jarraiki panpinak egingo dituzte eta erakusketa antolatuko dute.

PROZEDURA:

1

Atazaurrea

- Ikasleek liburuan daukaten marrazkiari begiratu eta zeintzuk tresna eta material erabiliko dituzten komentatuko dute. (5')
- Irakurri aurretiko hipotesiak egingo dituzte; horretarako ikasleek bikoteka *Nola egingo zenuke?* ariketako esaldiak irakurriko dituzte, eta hurrenkera logikoan antolatzen saiatuko dira. (15')

ZUZENKETA - ORRIA**NOLA EGINGO ZENUKE**

1	C
2	G
3	H
4	A
5	F
6	D
7	E
8	B

- Taldeka egindako antolaketak komentatuko dituzte, bat adostu arte. (10')
- Egindako hipotesiak egiaztatuko dituzte: *Nola egiten dira panpinak?* bideoa ikusiko dute (3. **bideo-pasarte**) eta aurreko ariketa ondo egin duten frogatuko dute. Zer ez duten ulertu eta zertan erratu diren komentatuko dugu. (15')

Gramatika eta diskurtsoa: denbora adierazteko hizkuntz formak

- Ikasleek bikoteka *Azalpen nahasiak* ariketa egingo dute: testua irakurri, eta azpimarratuta dauden esaldietan esaten dena zuzenduko dute (denbora txarto erabilita dago). (15')

Ataza: panpinak egin

- Ikasleak taldetxoetan jarriko dira eta bideoan ikusitako arauetara jarraiki goma-espumazko panpinak egingo dituzte. (60')
- Taldeetan daudela panpinak nola egin dituzten azaltzeko testuak idatziko dituzte. (20')

Feedbacka

- Idatzitako testuak ozen irakurriko ditugu, eta guztion artean testu bakarra adostuko dugu (ideiak bilduta). (20')

Atazostea: erakusketa antolatu

- Egin ditugun panpinak erabilita eta idatzi dugun testuaz baliaturik erakusketa bat antolatuko dugu euskaltegian. (30')

1. BIDEO-PASARTEAK

A ATAZA: ESKULANAK GOGOKO OTE?



1 BIDEO-PASARTEA

■ Iraupena: 2'58"

MANU GARZIA

Gure etxean betidanik egin ditugu horrelako gauzak, zumea eta egurrarekin. Nire aitonak aulkiak, mahaiak eta antzekoak egiten zituen eta gero, ba, saltu egiten zituen. Nik beragandik ikasi dut eta nik gehienbat zumea lantzen dut. Nire lanbidea beste bat da, baina denbora pasa edo egiten dut hau eta gero, ba, azokan saldu eta sosa batzuk ateratzen ditut. Egurra... egurrezko irudiak asko gustatzen zaizkigu etxean eta gaur egun nire anaiak egiten ditu eta oso... oso gauza politak ateratzen zaizkio.

JONE IBARRA

Bueno, niri izugarri gustatzen zait eskulanak egitea eta hau da nire zaletasun txikia edo. Eta horixe etxea normalean trastoz bete izaten dut, eta lagunak etortzen direnean eta horrela, ba, nitaz parre egiten dute, esertzeko lekurik ere ez dute topatzen eta. Eta bueno, normalean kanpora joaten naizenean ohitura daukat, ba hori, denda txikitan, bitxikeriak eta halakoak erosteko. Eta bueno, gehien gustatzen zaidana margotzea da, batez ere hori, margotu. Eta bueno, lorontziak eta horrela askotan erosten ditut, gero zuk ikutu txikiak egiteko eta horrela, eta bueno, ba, gero noski, etxean sartzen ez zaizkidanez, ba, lagunei oparitu eta beste batzutan, ba loreak nik neuk sartzen ditut, nik neuk eginak batzutan ere, eta bueno, horixe da, margotzea, eskulanak, eta bueno... Normalean astebukaeratan, ba, patxaran, etxera iritsi eta hori, gustatzen zait, ba, hori, horretan aritzea pixka bat, desestresatzeko edo...

JOSU LOPEZ

Ba, bueno, eskulangintzari buruz esan behar dut ni ez naizela oso zalea. Baditut horrelako egurrezko lanak etxean, baina... bueno, ba horixe, ez naizela oso zalea. Batzuk neuk erosiak direla eta beste batzuk opariak, bereziki opariak. Egin izan ditut nik horrelako gauzak eskolan, buztinezko gauzak eta paperezko gauzak, ba, itsasontziak direla, txoriak eta bueno, betiko gauzak, ez? Baina orain ez zait okurritzen horrelakorik egitea, ez daukat zaletasunik eta gainera denborarik ere ez daukat. Nik beste zaletasun batzuk ditut, ba, zinemara joatea, musika entzutea, eta mendira joatea, bereziki asteburuan, eta bizikletaz ibiltzea ere bai, eta ez daukat denborarik. Orduan ez zait okurritzen horrelako gauzarik egitea.

ATAZA: GOLOKARI ELKARRIZKETA



2 BIDEO-PASARTEA

■ Iraupena: 1'31"

JAIONE Aizu! Nondik atera duzue taldearen izena?**GOLOKA** *Goloka?* Ba, kondaira indiar batetik atera dugu. *Goloka* kondaira horretan jainkoen opor lekua da. Ez pentsa, e? Buelta asko eman genituen izena aukeratzeko.**JAIONE** Eta zer egiten duzue gero panpina horiekin? Erakusketak-edo egiten dituzue, ala?**GOLOKA** Ez, batez ere kalean ibiltzen gara. Kale antzerkia egiten dugu. Beno, eta panpinak, jantziak eta beste kontu guztiak ere geuk egiten ditugu.**JAIONE** Lan itzela, ezta? Eta dirurik ematen du, ala?**GOLOKA** Tira, diru askorik ez du ematen, baina aurrera egiteko beste bai.**JAIONE** Eta denbora luze daramazue lan honetan?**GOLOKA** Ba, hamabost bat urte uste dut. Bai, gutxi gorabehera hamabost izango dira.**JAIONE** Baina batzuetan ez duzue lan handirik izango, ezta?**GOLOKA** Hemen tailerrean egunero daukagu zerbait egiteko. Eta gero kalean, ba, batez ere jaietan: Gabonetan, lhauterietan, udako jaietan eta horrelakoetan ibiltzen gara.**JAIONE** Baina oporrak-edo noiz edo noiz hartuko dituzue.**GOLOKA** Ba, Euskal Herritik kanpora goazenean aprobetxatzen dugu oporrak hartzeko.**JAIONE** Eta lana antolatzeke-eta zelan konpontzen zarete? Nagusirik, arduradunik edo horrelakorik badaukazue?**GOLOKA** Ez, ez. Hemen bakoitzak bere ardura dauka, baina denon artean egiten dugu dena.**JAIONE** Ba, lan polita ematen du, ezta?**GOLOKA** Bai. Gu oso gustura ibiltzen gara herririk herri. Oso polita izaten da jaietan ibiltzea. Lana bada, baina dibertsioa ere bai.

ATAZA: NOLA EGITEN DIRA PANPINAK?



3 BIDEO-PASARTEA

■ Iraupena: 2'46"

Badakizue kale antzerkia nola egiten den? Ikasi nahi duzue? Ez? Ba, orduan agur!

Hala ba, ez negarrik egin, kontaktu egingo dizuet. Gu GOLOKA taldekoak gara. Munduko titiriterorik onenak! Herririk herri ibiltzen gara kaleak alaitzen. Hara nola ibiltzen garen! Muntaketa lana nahiko gogorra da. Burdina hauek astunak dira, ez pentsa!

Gustatzen zaizue? Beitu jendea zein pozik dagoen!

Ba panpinak ez ditugu erosten, e! Geuk egiten ditugu. Sss, sekretua da eta! Itxi leihoak eta ateak! Ez da mikrofonorik egongo, ezta?

Beno ba, buru bat nola egiten den esango dizuegu. Behar diren gauzak hauexek dira: artaziak, kontaktu-kola, errotulkiak, spray pintura, ilea egiteko datxa, kotoia... begietarako tapoiak, pilotak... eta goma-espuma, jakina! Zati honi buru forma eman behar zaio. Horretarako artaziekin biribildu egingo dugu, gutxi gorabehera. Hori egin ondoren, sudurra egingo dugu. Horretarako goma-espumazko piramide bat hartuko dugu. Nahi dugun forma eman eta kolaz aurpegian itsatsiko dugu. Sudurra ipinita dagoenean, zelako aurpegia egin pentsatu eta markatu egingo dugu. Artaziekin bolumenak aterako ditugu: matrailak, begizuloak, ahoa, kokotsa.

Orain belarriak egingo ditugu. Horretarako goma-espumazko errektangelu zapalak aukeratuko ditugu. Moztu eta itsatsi egingo ditugu. Belarriak itsatsi ondoren pintatu egingo dugu. Guk spraya erabiltzen dugu. Pintatu ondoren lehortzen utzi eta lehortzen denean, kolorea eman, begiak eta ilea jarri eta eginda dago burua.

Goma-espumaz edozer egin daiteke: sagarrak, sugeak, zizareak, nahi duzuen!!!

Orain badakizkizue gure sekretu guztiak, baina ez guri kompetentziarik egin gero, e! Bestela...

2. ROLAK

Zelakoa da elkarrizketatua?

Zu ez zara *Goloka* taldekoa. Gaur bisitan etorri zara eta bat-batean norbait galdezka hasi zaizu. Eta isilik egoten ez dakizunez, erantzun egin diozu, jakina. Baina ideiarik ere ez daukazu eta edozein gauza erantzun behar izan diozu.

Zelakoa da elkarrizketatua?

Zu taldean berri-berria zara. Eta taldearen kontuak jakin badakizkizu, bai. Baina zalantza handiak dituzu. Nori eta zuri galdetu behar!

Zelakoa da elkarrizketatua?

Zu taldeko arima ei zara (zuk horrela pentsatzen duzu, behintzat). Ia dena zeuk egin duzu eta egiten duzu, eta zu gabe ez ei dago *Golokarik*.

OHARRAK

A large yellow rectangular area containing 25 horizontal dotted lines for writing. The lines are evenly spaced and extend across the width of the yellow area.

OHARRAK

A large yellow rectangular area containing 25 horizontal dotted lines for writing. The lines are evenly spaced and extend across the width of the yellow area, providing a guide for handwriting practice.

Eskuetan daukazun liburuxka HABEk Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Kurrikulua (HEOK) garatzeko sustatu duen ikas-materialari dagokio.

Kurrikulu berri honen arabera, euskalduntzeko ikas-materialak hiru mailatan banatzen dira:

1. maila (aurreneko 6 urratsak gutxi gorabehera) eta bi zatitan banatua:

1 A (1., 2., eta 3. urratsak) eta 1 B (4., 5. eta 6. urratsak).

1 A mailarako ikas-materialak ehun ordu inguruko hiru zatitan banatuko dira

0-100 (lehendabiziko ehun orduak)

100-200 (ondorengo ehun orduak)

200-300 (azkeneko ehun orduak)

2. Maila (7., 8. eta 9. urratsak);

3. maila (10., 11. eta 12. urratsak).

BARRENDIK (1 A Maila)

200-300 ordutarako materiala

- Gogozko tokian aldaparik ez
- Eskulanak
- Garai modernoak
- Pisukide berria

BARRENE (1B mailarako materiala)

- Ni Tarzan... zu Jane (1. ikastunitatea)
- Ikusiz ikasi (2. ikastunitatea)
- Ederra da hitza (3. ikastunitatea)
- Eta etorkizunean, zer? (4. ikastunitatea)
- Han ere txakurrak oinutsik (5. ikastunitatea)
- Euskaldun fobiadun (6. ikastunitatea)
- Txangoa (7. ikastunitatea)
- Sineskeriak (8. ikastunitatea)
- Beti gose, ezin ase (9. ikastunitatea)
- Eguberri on (10. ikastunitatea)
- Txutxu-mutxuak (11. ikastunitatea)
- Hego haizea, ero haizea (12. ikastunitatea)
- Betiko topiko tipikoak (13. ikastunitatea)
- Gaueko berotasunean (14. ikastunitatea)
- Erne ibili (15. ikastunitatea)
- Lanak ematen digun lana (16. ikastunitatea)
- Bizkaia maite (17. ikastunitatea)
- Bapo jan eta zorionekoa izan (18. ikastunitatea)

BARRENET (2. mailarako materiala)

- Euskaldunaren hitza ez da ur gaineko bitsa (1. ikastunitatea)
- Zu nolako, etxea halako (2. ikastunitatea)
- Donostian Donosti eta gorostian gorosti (3. ikastunitatea)
- Liburuak, trukean (4. ikastunitatea)
- Euskal balea (5. ikastunitatea)
- Ogi gogorrari hagin zorrotza (6. ikastunitatea)
- Aratuste edo ihauteri: Pirata edo kortsari (7. ikastunitatea)
- Opor bereziak (8. ikastunitatea)
- Urtean joan, urtean etorri (9. ikastunitatea)

BARRENKALE (3. mailarako materiala)

- Neu eta neu bezalako beste piztia batzuk (1. ikastunitatea)
- Txapela buruan, ibili munduan (2. ikastunitatea)
- Lévi-Strauss eta Levi Strauss (3. ikastunitatea)
- Lau hankako lagunak (4. ikastunitatea)
- Hara eta hona (5. ikastunitatea)
- Atxagaren beldurak (6. ikastunitatea)
- Bizi aroak (7. ikastunitatea)
- Olatua ez dator behin ere bakarrik (8. ikastunitatea)
- Besteak hor konpon (9. ikastunitatea)
- Ikusi-makusi zinera-jauzi (10. ikastunitatea)

HABE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

Erakunde Autonomiaduna
Organismo autónomo del



ISBN84-86968-29-1



9 788486 968298